


# KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Baleazaleak arriskuan



Xabier Etxaniz Erle



### **Kearen fiordo** IÑAKI PETXARROMAN

Elkar, 2015  
(235 orrialde)  
Gazteentzat

Euskal arrantzaleek hainbat abentura izan dituzte historian zehar, bai eta gure zaldun eta marinelek; hala ere, oso gutxi dira horien inguruko literatura lanak. Aurreko batean orri hauetan bertan komentatu genuen *Justin Hirriart* komiki lana dugu lan bakanetako bat. Eta azken hori bezala, *Kearen fiordo*a abenturazko lan interesgarri eta entretenigarria ere badugu.

1615ean Islandiako mendebaldeko fiordoetan jazotako gertakari historiko batzuetan oinarrituta, Iñaki Petxarromanek nobela historiko guztiz interesgarria idatzi du. Euskal marinela, ohiko arrantzaldia egin ondoren, harrapatuta geratu ziren eta hala zeudela islandiarren eraso bortitza jasan. Euskaldunen artean hildako ugari izan ziren (sarraskitzat hartu izan da hainbat lanetan hogeita hamabi lagun haien hilketak) eta hango istorioen/historiaren narrazioa da nobelan aurkezten zaiguna, kasurik gehiengotan benetako pertsonaien izenak erabiliz.

Martin Villafranka dugu horietako bat, kapitain gaztea, esperientzia gabekoa eta aurreko ibilaldietan Islandiako neska batez maitemindua. Petxarromanek, nobela historikoetan gertatu ohi den bezala, errealitatea eta fikzioa uztartzen dizkigu, dosi neurrietan irakurketa erakargarria lortuz. Eta benetan lortzen du irakurleak abenturetan harrapatzea. Euskaldunen larritasuna, beldurra, kemena senti daitezke narrazioan. Bai eta Martinen eta Huraren arteko maitasuna edo Jon Gudmundsson artzain protestantearen eta Pedro euskaldunaren arteko adiskidetasuna ere.

Euskal baleazaleak Islandiako fiordoetan harrapatuta geratu dira, itsasontziak gainera urperatuta ekaitz baten ondoren, eta egoe-

ra horretan, Ari Magnusson magistratuak bertakoak bidaltzen ditu euskaldunen kontra, bortxaketak, lapurretak eta beste hainbat gaiztakeria leporatuta. Intriga eta tentsioa ageri zaizkigu, jakin ere badakielako irakurleak ez dela amaiera zorionsua duen maitasunezko nobela horietako bat; eta hori argi geratzen da Martinen heriotza jazotzean. Lehenago ere beste eraso batean egoeraren gordintasuna nabari da, bizitzaren balio eskasa lurralde haietan. "Ikararen mende iritsi da Ramiro Martinengana, egunak eta gauak mendi izoztuetan barrena ibili ondoren, ia ezer jan gabe (...). Ia hitzik egin gabe ulertu du Martinek dena, herioa islatzen baita Garziaren begietan".

Azken batean *Kearen fiordo*a gertakari historikoetan oinarritutako nobela bizi eta irakurlea harrapatzen duten horietakoa dugu. Abentura, maitasuna, adiskidetasuna, nahikeria eta beste hainbat sentimendu, gertakari, pasadizo biltzen dituen nobela ederra. Gure historia hobeto ezagutzeko balioko du Iñaki Petxarromanen lehen lan honek, bai eta une atsegina igarotzeko, zalantzarik gabe. ■

*Iñaki Petxarroman eta Edorta Jimenez liburua hizpide, Durangoko Azokan.*

